

## Otsailean 15 proiektu aurkeztuko dira Huhezin, karrera amaierakoak

2010/02/14

2010eko otsailaren 15tik 26ra bitartean, 15 karrera amaierako proiektu aurkeztuko dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean, honela banatuta:

- **Psikopedagogian:** 7 proiektu aurkeztuko dira:
  - Edurne Arrizabalaga: Errefortzu taldeak Arrasateko Institutuan.
  - Maitena Agirrebeitia: Bilera funtzionalen potentziatzea.
  - Adrian Mauleon: Norvegiako hezkuntza sistema eta Nafarroako hezkuntza sistema.
  - Maitane Aierza: Haur Hezkuntzako gelen giroa.
  - Aitzol Urruzola: Familiaren inplikazioa eta ikasleen errendimendu akademikoa.
  - Iñigo Unanue: Garapen pertsonalerako eta orientazio laboralerako ikastaroa hezkuntza holistikoaren markoan.
  - Aritz Zearra: Mendeberrri hezkuntza proiektuko ebaluaketa mota derberdinek ikasleen ikasten ikastea kompetentzian duen eragina aztertzea.
- **Ikus-entzunezko komunikazioan:** 5 proiektu aurkeztuko dira:
  - Ane Foronda eta Julen Elorza: Stop motion bidezko animazioa.
  - Tomin Tapia: Mendeberrri hezkuntza ereduaren bideo korporatiboa.
  - Usua Garin: Economía solidaria, cooperativismo y autogestión.
  - Jon Adan: Digitalizazioak EITBko albistegietan izandako eragina aztertzen.
  - Aitor Ferrer: Elkartasunaren bideak saioarentzako Internet bidezko banaketa bideak aztertzen.
- **Humanitateak-Enpresan:** 3 proiektu:
  - Maite San Martin: Proceso de selección de personal.
  - Maialen Agirre: Izero datu basearen eguneratzea.
  - Itziar Zunzunegi: Kaiera proiektuaren diskurtsoen analisi kritikoa.

### Ezinbesteko lana

Ikasketa guztietan, **ikasleek ezinbestekoa dute karrera amaierako proiektua** egitea titulua lortzeko. Proiektuaren helburua da ikasleari lan serioa eragitea, ikasketetan gainditu behar izan duena baino konplexuagoa. Lanak **bi alde** izaten ditu, **teorikoa eta praktikoa**, eta, bukatutakoan, epaimahai baten aurrean aurkeztu behar izaten da.

